



612/2024 EBAZPENA, IRAILAREN 5KOA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, BEHIN BETIKO BARNE MUGIKORTASUNAREN, ALDI BATERAKO BARNE SUSTAPENAREN ETA ZERBITZU EGINKIZUNEN BIDEZ FAKULTATIBO ESPEZIALISTA.U.G.S MEDIKU LANPOSTU BAT BETETZEKO DEIALDIA EGITEN DA, TITIETAKO MINBIZIA BAHETZEKO PROGRAMAKO ZERBITZUAN, OSPITALEKO KOORDINAZIOKO ZUZENDARIORDETZAN, ASISTENTZIA SANITARIOKO ZUZENDARITZAN, OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIAN.

LANPOSTUA: Fakultatibo Espezialista. U.G.S. medikua

DESTINOA: Zuzendaritza Nagusia, Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza, Ospitale Koordinazioko Zuzendariordetza, Titietako Minbizia Bahetzeko Programa Zerbitzua.

LANALDIA: Zatitua

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA: 2. HE derrigortasun-datarekin (2005/06/01).

BETEKIZUNAK: (Agiri bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta CV aplikazioan badaude). Guztientzat: Medikuntzan lizentziaduna. A1 taldeko espezialitate guztiak

Behin betiko barne-mugikortasunaren eskatzaileentzat:

- Karrerako funtzionarioa, estatutupeko langile edo lan-legepeko langile finkoa izatea eta lanpostua jabetzan izatea Zuzendaritza Nagusian.

- Mugikortasun horizontalaren xede diren destinoen kategorია / lanpostu funtzional berdina izatea.

Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

Aldi-baterako barne-sustapenaren eskatzaileentzat:

- Osakidetza zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langile edo lan-legepeko langile finkoa izatea.

- Zerbitzu aktiboan egotea eta lortu nahi den lanpostuaren titulazio-maila berekoa den beste kategorია batekoa izatea.

- Ez izatea karrerako funtzionario, estatutupeko langile finko edo lan-legepeko langile finkoko izendapenik FEM kategorian. Familiakoa eta komunitatekoa, izendapen edo kontratu horrekin zerikusia duen administrazio-egoera edozein dela ere.

- Zuzendaritza Nagusiari atxikita egotea langile finko gisa, Zuzendaritza Nagusiko langileen barne-sustapenaren kasuan.

- Zuzendaritza Nagusia ez den beste zerbitzu-erakunde bati atxikita egotea langile finko gisa, zerbitzu-erakundeetako langileen arteko barne-sustapenaren kasuan.



- Kategoria bereko lanpostu batean aldi baterako barne-sustapenean egonez gero, egoera horretan urtebete baino gehiago egotea, etenik gabe.

- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan ezarritako titulazioa izatea eta azken EPE deialdian kategoria honen oinarrietan ezarritako gainerako titulazio-eskakizunak betetzea.

Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langile edo lan-legepeko langile finkoa izatea edo Osasun Sistema Nazionaleko gainerako osasun-zerbitzuetako karrerako funtzionarioa edo estatutupeko langile finkoa izatea Familiako eta Komunitateko FEM kategorian.

- Zerbitzu aktiboan egotea, eta lanpostuak betetzeko eskaera ez egitea norberak lanpostua jabetzan duen edo zerbitzu aktibora behin-behinean itzultzeagatik atxikita dagoen zerbitzu-erakundearen.

Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

MEREZIMENDUEN BAREMOA (agiri bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta CV aplikazioan badaude):

Behin betiko barne-mugikortasunaren eskatzaileentzat:

- Esperientzia profesionala, kategoria honen azken lekualdatze-lehiaketaren oinarrien arabera. (gehienez, 50 puntu).

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte aitortu zaien zerbitzu denbora-tartea hartuko da kontuan.

Aldi-baterako barne-sustapenaren eskatzaileentzat

- EPEko oposizio-fasea (gehienez, 100 puntu)

- Lan-esperientzia (gehienez, 80 puntu)

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat

Lan-esperientzia, kategoria honen azken lekualdatze-lehiaketaren oinarrien arabera (gehienez, 50 puntu).

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.



Interesdunek Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidali behar dute eskabidea (Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz), beren datu pertsonal guztiakin, curriculum vitae dokumentatuarekin (aplikazio informatikoan baliozkotuta daukatenez izan ezik) eta eskatutako ezagutza espezifikoak egiaztatzeko egokitzat jotzen duten dokumentazioarekin batera.

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

LEHENTASUN-HURRENKERA

Lanpostua betetzeko lehentasun-hurrenkera honako hau izango da:

1. Behin betiko barne-mugikortasuna Zuzendaritza Nagusian. Sistema hori erabilia ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo atalean adierazten dena erabiliko litzateke.
2. Aldi baterako barne-sustapena Zuzendaritza Nagusian. Sistema hori erabilia ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo atalean adierazten dena erabiliko litzateke.
3. Zerbitzu-eginkizunak: Sistema hori erabilia ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo paragrafoan adierazten dena erabiliko litzateke.
4. Zerbitzu-erakundeen arteko aldi baterako barne-sustapena

BALORAZIO-BATZORDEA

Balorazio Batzordea osatuko da, batzordeburu Giza Baliabideen Hautaketako eta Horniketako zuzendariordea edo hark eskuordetzen duena izanik, eta hauexek izango dira bertako partaideak: Lehen Mailako Arreta Koordinatzaile zuzendariordea, Ospitaleko Arreta Koordinatzaile zuzendariordea Giza Baliabideen Hautaketako eta Teknikari Juridiko bat (idazkari izango dena).


HAUTAKETA-PROZEDURA

Interesdunek epearen barruan eta behar bezala aurkeztutako dokumentazioa baloratuko du Balorazio Batzordeak. Aurrekoa ikusirik, proposamena egingo da dagokion izendapena formalizatzeko. Balorazio Batzordeak esleitu gabe utzi ahal izango du lanpostua, izangaiek ez badituzte betetzen eskatzen diren baldintzak.

EBAZPEN HONEN AURKAKO ERREKURTSOAK:

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa ezar dakiokete Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko irailaren 5an



JOSUNE RETEGI ORMAZABAL

GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA